



ERRAIK AZALERA

Hurbil gertatzen denean...

Zeharkatu gaituzte objektu sexual huts sentiarazi diguten begiradek. Gure inguruan ere entzun dugu “arroza pasako zaizue”, maizegi. Gu ere nagusiaren zenbait jarrerak estutasunean jarri gaituzte. Hurbilegi sentitu ditugu bere hitzak eta, noiz edo noiz, eskuak. Duela gutxi, pausua azkartu genuen etxerako bidean. Nahiz eta barrote artean eta herritik urruti gauden, hurbilegi sentitzen ditugu komisaldegian ireki ziguten zauri bakoitza. Guk ere jasan dugu “etxea garbitzen lagunduko dizut”, gure azalean, ustez ardurak partekatzen ditugun garai honetan. Guk ere izan genituen sexu-harremanak gau hartan nahi ez bagenuen ere, mutil-lagunaren insistenziak jota. Guk ere isilik egoteko hautua egin genuen bileran, buruari buelta gehiegi eman ostean.

Horiek eta deskribatu gabeko beste biolentzia ugari hurbil gertatu zaizkigu. Oraingoan, hurbileko harremanetan jarri nahi dugu fokua, pribatuagoa, intimoagoa, ezkutukoagoa, den horretan. Begira diezaiozun ikusten ez denari, begira diezaiegun bikote harremanei, lagun inguruari, familiartekoei, militantzia sareei... Maitasun erromantikoaren mamutzarraren izarapean eraikitzen diren harremanak, gizonen nagusitasuna iraunarazten dutenak, heteroaraua indartzen dutenak, emakumeok sotilki baztertzen gaituztenak. Finean, eraso bat eraso dela ikustea zailtzen digutenak. Ilunpeko erasoez arituta, “Ikusi makusi zer ikusi...” iaz erabili genuen leloa gogora datorkigu erraz. Eta tripetan min-ziztada bat sentitzen dugu, haurren aurkako abusuek egun duten inpunitateaz jabetzean. Egin dezagun ikusgarri ikusezina.

Jendartearen erraietan dagoen matxismoa azaleratu nahi izan dugunean zalantzan jarri dituzte gure hitzak. Epaitu eta errua guri egozteaz gain, ez dizkigute bitzakoak sinetsi. Sistema hetero-patriarkalak hamaika trikimailu darabiltza gu isil, menpeko eta otzan bihurtzeko. Baina, gero eta gutxiago behar dugu gure bertsioa batzuentzat sinesgarri izatea. “Nik sinesten dizut” esan diogulako elkarri, gero eta aitortza herritar handiagoa daukagulako inguruan eta gehiago garelako, horri esker, jazarpen oro salatzen garenak.

Azken urteetan urrats handiak egin dira. Hala, lorpen garrantzitsuez hitz egin dezakegu, konplexurik gabe, eremu publikoari begira egin den lana kontuan hartzen badugu. Indarkeria sexistari izena jarri diogu, kontzientziazioa zabaldu, eta horri aurre egiteko lege, organo eta baliabideak bultzatu ditugu. Kanean, gauean ematen diren erasoei erantzun diegu irmoki artikulatu, manifa, bideo edo kale ekintzen bitartez. Egindako ibilbidea aitortu, txalotu, eta gertu ditugun testuinguruetan arreata berezia jartzea proposatzen dugu gaurkoan.

Askotarikoak dira hurbil bizi ditugun bortizkeriak. Ez dira puntu more baten barruan kabitzen. Horregatik diogu ez dela nahikoa muturreko egoeren aurrean pankartaren atzean jarri, hedabideen aurrean adierazpenak egin edota betearazleak ere ez diren estatu itunak idaztea. Diskurtso eta praktiken arteko desorekei kasu egiteko momentua heldu zaigu. Azaleko keinuetatik harago joan behar dugu eta errotik heldu behar diogu indarkeria sexista ahalbidetzen duten egitura patriarkalei. Horretarako, lehenetsunak markatu behar ditugu agenda politikoetan, prebentzioan inbertitu beharra dago,



zintzoki diharduten erakundeak behar ditugu, benetako borondatea dutenak, ausardia daukatenak eta mugimendu feminista aintzat dutenak.

Baina, erakunde publikoez gain, zein paper hartu beharko genuke bestelako eragile zein mugimenduetatik? Zer gertatzen da arazoa etxean daukagula ohartzen garenean? Zer gertatzen da kolpeak, jazarpena, irainak, *baboseoa*, bortxaketak, ukimenak... gure peñan, gure konpartsan, gure elkartean, gure kuadrillan, gure lagunaren bikote-harremanean ematen direnean? Horretaz aldendu nahi dugun arren, gu eraikitzen ari garen prozesu askatzaileak ere sistema heteropatriarkalaren baitan daude. Baina dihardugun espazio horietan botere egiturek badiraute, ez da inolako aldaketarik egongo. Arazoa erraieran dugunean, ardura denona da, ez soilik Mugimendu Feministan aktiboki dihardugunona edo emakumeona*. Indarkeriaren aurkako protokoloak, elkarretaratzeak, erantzunak, barne mailako erasoak, kolektiboen barruan ematen diren botere harremanen lanketa... denon kezka izan behar lukete. Beraz, konpromisoa kolektibizatu beharra dago eta bitarteko gehiago eskaini antolatutako mugimendu, eragile sozial, sindikatu edota alderdietatik.

Emakumeon* gorputzek gudu zelai izateari uzteko, gure aurkako gerra bakebidean jartzeko, guztion erantzunkizuna behar-beharrezkoa da: norbanako bakoitzak ematen dituen urrats txikietatik hasita, lege ekimen eta estatu politiketaraino. Betiere praktika eraldatzaileetan sakonduz, diskurtso faltsuekin apurtuz eta "berdintasunaren aldeko" literatura benetan aplikatuz. Barnetik hasita. Errepara diezaiegun erraiei.

Erraiak. Errai odoltsuak. Errai handiak. Puztuak. Minduak. Tirita eske dabilzan erraiak, mimoen beharra dutenak. Errai indartsuak. Zureak eta nireak. Gureak. Gure minak, gure zauriak, gure gorputzak, gure odola, gure bizitza, gure osatzea, gure erantzuna, gure borroka, gure indarra... Atera ditzagun azalera!

Euskal Herriko Bilgune Feminista

Euskal Herrian, 2017ko azaroaren 18an

* *Emakume kategoria erabiltzen jarraitzen dugu gure egungo errealitatean politikoki eragiteko oraindik baliagarria delakoan, nahiz eta sexu-genero sistemak markatzen duen binomioaz gaindi bizipen, ibilbide, ahalmen eta identitate anitzak ere bagaren (bollerak, trans...)*



SAQUEMOS LAS ENTRAÑAS A LA LUZ

Cuando ocurre cerca...

Hemos sido atravesadas por miradas que nos han hecho sentir como puros objetos sexuales. Hemos escuchado "se os va a pasar el arroz" en nuestro propio entorno y con demasiada frecuencia. También nos han hecho sentir incómodas ciertas actitudes de nuestro jefe. Hace poco, tuvimos que acelerar el paso de camino a casa. Aunque estemos entre barrotos y lejos de casa, nosotras sentimos demasiado cerca cada herida que nos abrieron en las comisarías. También hemos sufrido el "ya te ayudo a limpiar la casa" en nuestra piel, en esta época en la que supuestamente compartimos responsabilidades. Nosotras tuvimos relaciones sexuales aunque aquella noche no tuviéramos ganas, solo porque nuestros novios insistían. Nosotras también decidimos estar calladas durante la reunión, después de darle demasiadas vueltas a la cabeza.

Hemos vivido esas y otras muchas violencias desde muy cerca. En esta ocasión, queremos poner el foco en las relaciones cercanas, en aquello más privado, más íntimo, más escondido. Observemos aquello que no se ve en las relaciones de pareja, en el entorno amistoso, en la familia, en la militancia, en las redes... Relaciones que se construyen bajo la sábana del fantasma del amor romántico, que hacen perdurar la superioridad de los hombres, que refuerzan la heteronorma, que marginan a las mujeres sutilmente. Al fin y al cabo, pongamos el foco en aquello que nos dificulta ver que una agresión ha sido una agresión. Y al hablar sobre agresiones ocultas, nos viene rápidamente a la cabeza el lema que del año pasado, "Veo veo, qué ves...", y sentimos una punzada de dolor en la tripa al entender la impunidad que tienen hoy día los abusos contra los niños y niñas. Hagamos visible lo invisible.

Cuando hemos querido sacar a la luz el machismo que existe en las entrañas de la sociedad nuestra palabra ha sido puesta en duda. Aparte de juzgarnos y de echarnos la culpa, no han querido creer lo que nosotras hemos vivido. El sistema heteropatriarcal utiliza mil y una artimañas para que estemos calladas, subordinadas y dóciles. Pero necesitamos cada vez menos que nuestro discurso sea legitimado por terceras personas. Le hemos dicho la una a la otra "Yo te creo", tenemos cada vez más reconocimiento social y, en consecuencia, somos cada vez más las que nos atrevemos a denunciar todo tipo de agresiones.

Durante los últimos años se han hecho grandes avances. Es por ello que podemos hablar sin ningún complejo de victorias importantes, teniendo en cuenta el trabajo que se ha hecho en el ámbito público. Le hemos puesto nombre a la violencia sexista, hemos ampliado la concienciación sobre ella y hemos impulsado leyes, órganos y recursos para hacerle frente. En la calle, hemos respondido a las agresiones que se dan durante la noche mediante artículos, manifestaciones, vídeos y acciones. Hoy proponemos reconocer y aplaudir el camino recorrido y poner especial atención en contextos más cercanos.

Las violencias que vivimos de cerca son muy diversas y no caben dentro de un punto lila. Por eso, decimos que no es suficiente con ponerse detrás de una pancarta en situaciones extremas, no es suficiente con hacer declaraciones para los medios ni



tampoco con escribir convenios estatales que ni siquiera son legislativos. Ha llegado la hora de prestar atención a las desigualdades entre el discurso y la práctica. Tenemos que ir más allá de gestos superficiales y capturar desde las entrañas a las estructuras patriarcales que hacen posible la violencia sexista. Para ello, debemos marcar prioridades en las agendas políticas e invertir en la prevención, por lo que necesitamos instituciones que trabajen con sinceridad, que tengan verdadera voluntad y valentía para hacer frente a la violencia y que tengan en cuenta al movimiento feminista en ese camino.

Pero, además de las instituciones públicas, ¿qué papel deberíamos tomar el resto de colectivos y movimientos? ¿Qué pasa cuando nos damos cuenta de que el problema lo tenemos en casa? ¿Qué pasa cuando los golpes, el acoso, los insultos, el baboseo, las violaciones, los tocamientos... pasan en nuestra peña, comparsa, sociedad, en nuestra cuadrilla o en la relación de pareja de nuestra amiga? Aunque queramos alejarnos del sistema heteropatriarcal, los procesos liberadores que estamos construyendo también se desarrollan ahí. Sin embargo, está en nuestras manos que las estructuras de poder no persistan en aquellos espacios donde trabajamos, si no, nunca habrá cambios. Cuando el problema está en nuestras entrañas, la responsabilidad es de todas y de todos, no solamente de las mujeres* o de las personas que trabajan activamente en el Movimiento Feminista. Los protocolos contra las agresiones, la concentraciones, las respuestas... deberían ser una preocupación de todas y de todos. Por lo tanto, debemos colectivizar este compromiso y ofrecer más recursos mediante los movimientos organizados, los colectivos sociales, los sindicatos y los partidos.

Para que los cuerpos de las mujeres* dejen de ser campos de batalla, para encaminar hacia la paz esta guerra contra nosotras, la responsabilidad es totalmente necesaria; desde los pequeños pasos que se pueden dar individualmente, hasta las iniciativas de leyes y políticas estatales. Siempre profundizando en la práctica transformadora, rompiendo con falsos discursos y aplicando de verdad la literatura "a favor de la igualdad". Empezando desde dentro. Miremos hacia nuestras entrañas.

Entrañas. Entrañas sangrantes. Entrañas grandes. Hinchadas. Doloridas. Entrañas que piden tiritas, que necesitan mimos. Entrañas fuertes. Las tuyas y las mías. Nuestras. Nuestros dolores, nuestras heridas, nuestros cuerpos, nuestra sangre, nuestra vida, nuestro cuidado, nuestra respuesta, nuestra lucha, nuestra fuerza... ¡Saquemos nuestras entrañas a la luz!

Euskal Herriko Bilgune Feminista

En Euskal Herria, a 18 de noviembre de 2017

* Seguimos utilizando la categoría mujer porque consideramos que aún es válida para incidir políticamente en nuestra realidad actual. Sin embargo, más allá del binomio marcado por el sistema de sexo-género somos vivencias, capacidades e identidades muy diversas (bolleras, trans...)